

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

342 - 2026ko ILBELTZA

OPARIRIK HANDIENA
ELKARRI ESKAINIA

MENDIALDEA: LURRALDEAREKIN ARDURATSUA ETA JASANGARRIA DEN TURISMOARI BEGIRA

Azkenaldian, turismoari dagokionez, kezak, lurraldearen beharrak aztertzeke espazioak eta lantaldeak sortu dira.

Zentzu honetan, proiektu eta ekintza ugari aurrera eraman dira, era desberdinetan bultzatuak izan direnak. Egun, lurraldearekin arduratsua eta jasangarria den turismoa bultzatu nahi duen Plazola-Sakana-Ultzamaldea PSTDa (Helmuga-Turismo Jasangarrirako Plan - HTJP), martxan dago.

Hiru zonalde hauek amankomuneko jasangarritasun turistiko Plan honetan batu dira, eta helburu nagusia helmuga turistiko jasangarri, irisgarri eta benetako bihurtzea da. Sektore turistikoa eraldatzen eta tokiko ekonomian duen pisua handitzen lagunduko duena, enplegua sortzen eta landa gune txikietan zerbitzuak mantentzen lagunduz.

Honen baitan, 30 proiektu desberdin

aurrera aterako dira, trantsizio berdea, digitalizazioa, eraginkortasun energetikoa eta lehiakortasuna lantzeko.

Hala nola, 2025eko udaberrian, Larraungo udalaren eta Cedernaren artean 5 proiektu exekutatzeko hitzarmena sinatu zen. Honekin, Uitziko tunela konponduko da eta uholdeak zuzentzeko neurriak hartuko dira, Iribasen disuasio-aparkalekua egiten da bertaratzen diren ibilgailuen sarrera ordenatzeko eta Mendukiloko koban musealizatzeko eta sentsorizatzeko beste ekintza batzuk egingo dira, erakus-keta-gunea, segurtasuna eta ingurumen-kontrola hobetzeko.

Laster, Lekunberriko udalarekin hitzarmena sinatuko da, Plazolako Partzuergoak bultzatuta, Bide Berdeko tarre batean seinaleak berritzeko irizpide irisgarriekin, baita Lekunberriko Turismo Bulegoan dagoen bagoia berritzeko eta beste erabilera turistiko bat emateko.

Ikuspegi orokorrako batetik, zonaldean Irisgarritasun Plana martxan da, baliabide turistikoaren auditoriak egiteko eta bai enpresa turistikoari bai agente turistikoari formakuntza eskaintzeko. Digitalizazioari begira, ibilbideak digitalizatu eta plata-forma bakar batean bilduko dira.

Cederna Garalur Elkarteak urte pare bat daramatza Plan honetan lanean, inguruko beste erakunde batzuekin batera, hala nola Plazolako Partzuergo Turistikorekin, Sakanako Garapen Agentziarekin eta noski, udalekin, eta hemendik 2026ko ekainera arte proiektu hauen emaitzak ikusiko ditugu.

Nahikari Uriarte Intxaurren
Irati Lure Gorraiz
Plazola-Sakana-Ultzamaldea
PSTDen Koordinatzailea
PSTDaren teknikaria
Cederna Garalur Elkartea






CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES

URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



ERREABILITAZIOAK

IGELTSERITZA

FATXADAK

TEILATUAK

 Oztegin kalea 2, Lekunberri

 construccionesganarbe@gmail.com

 616 457 540

 636 827 846

· MAILOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:
Albiasu, Aldatz, Alii, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Mailope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Mailopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/mailopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:
Ainhua Beraza, Aitor Irastortza, Arantxa Mikeo, Ane Ubegun, Irati Moreno, Mikel Hernandorena eta Xanti Begiristain.

· ARGAZKIAK:
Agustín Saralegi, Ainhua Beraza, Ander Elizalde, Ane Baraibar, Araizko Udala, Argiñe Bildarratz, Belen Saralegi, Bertsozale.eus, Eva Fernandez, Felipe Uriarte, Jone Gabari, Juan Antonio Garaikoetxea, Joxe Mari Zabaleta, Larraun Pilota Elkartea, Luis Mari Ugarte, Luisa Aldaburu, Marijo Arroki, Nafarroako Pilota Federazioa, Tere Mariñelarena eta Yolanda Juanena.

· PUBLIZITATEA:
Irati Moreno - 660 476 041
info@mailope.eus

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udak, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernuak

02

CEDERNA GARALUR

04

KUXKUXEAN Zorion agurrak

07

MAITE DITUT MAITE
"Arrizubiko itzulia"

8

ELKARRIZKETA
"Urzubi kooperatiba 1980an sortu genuen"
Martin Bildarratz Vergara (Aldatz)



12

BATZARRE

14

PUBLIERREPORTAJEA
"Ezinbestekoa da herri txikien harategietako kalitatea bermatzea"
Maite Garcia Satrustegi (Betelu)



15

2026ko EGUTEGIA

19

KULTURA

28

PLAZATIK PLAZARA
"1991ko urtarilaren 1ean ireki nuen Lanbroa liburu-denda"
Amaia Alustiza Zufiaurre (Zegama)



31

AGENDA



Ciro Intxaurren Ariztia

Ilbeltzaren 3an, 6 urte.

Zorionak bihotz-bihotzez!

Ilbeltzaren hirua oso egun berezia

da! Urtebetetze zoriontsua opa

dizugu!

Mila esker, guztioi eman dizkiguzun

sei urte zoriontsu horiengatik.



Eñaut Garmendia Aristi

Ilbeltzaren 4an, 8 urte.

Zorionak, Eñaut!

Segi beti bezain zintzo,

alai eta jator!

Ikaragarri matte zatteu.

Ongi ongi pasa!

Musu handi bat familia

guztiaren partez.



Maddi Iribarren Irastorza

Urtarrilaren 16an, 3 urte!

Zorionak gure sorgin

txikie!

Musu erraldoi bat atte,

ama eta Enaran partez!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatz iezaguzu info@mailope.eus helbide elektronikora,
edo WhatsApp bidez **660 476 041** telefonora hilaren
20a baino lehen.



ASEGURU AHOLKULARIAK

*Zure ondarea eta segurtasuna
babesteko modu bakarra
behar bezela aseguratua
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



HOSTAL BETELU

Eguneko menua,
karta, plater
konbinatuak eta
pizza goxoak

Erreserbak:
948 51 30 26 · 663 97 67 09



ALIPROX

Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak

OTXOTORENA okindegia

ARRIBE

ADI!!! TLF BERRIA:
680 102 689



Lagunasesoria S.L.

**Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...**

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es

Bar Ainhua

- Razioak
 - Pintxoak
 - Ogitartekoak
 - Plater konbinatuak
 - Gosariak Tostadak mermeladarekin
eta bertan eskuz egindako madalenak,
erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.
- Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera
Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)
948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalf@hotmail.com



"ZURE TXAKURRA, ZURE ARDURA"

Azken hilabeteetan hainbat kexa izan dira Lekunberriko gune publikoetan azaldu diren txakurren gorozkien ondorioz.

Hala, Lekunberriko Udalak adierazi duenez: "Txakurrarekin doan pertsonak jaso behar ditu animaliak bide publikoan egiten dituen gorozkiak". Horretaz gain, herriko kaleak, parkeak eta bi-deak garbi edukitzea garrantzitsua dela azpimarratu du.

Izan ere, jaso gabeko gorozkiek eragozpenak sortzen dituzte eta espazio publikoaren partekatzea zailtzen dute.



UITZIKO TUNELAREN 2.680 METROAK ZOLATU NAHI DITUZTE

Plazaola Partzuergo Turistikoaren hitzetan "Uitziko tunela Europako bide berdeen egituran dagoen galeria luzeena da". Hala, milioi erdi euro behar ko dituzte tunelaren 2.680 metroak zolatzeko. Izan ere, lizitazioaren oinarritzko prezioa 577.534,94 eurokoa da. Halaber, Larraungo udalak abendu bukaera arte zabaldu zuen eskaintzak aurkezteko epea.



LAU APARTAMENTU BIRGAITZEN ARI DIRA ALDATZEN

Larraungo Udalak eta Aldazko Kontzejuak etxebizitzaren proiektu garrantzitsu bat jarri dute martxan: 50 m² inguruko lau apartamentu birgaitzen ari dira.


Proiektuak 570.000 euro inguruko aurrekontua du, eta honela finantzatu da: Nafarroako Gobernuak 237.000 euroko diru-laguntza emango du, Larraungo Udaletik 57.000 euroko ekarpena egingen dute eta beste 125.000 euro aurreratu ere. Azken 150.000 euroko mailegu baten bidez ordainduko dira, Aldazko Kontzejuaren ekarpenekin.

Informazio gehiago nahi baduzu, joan zaitez Larraungo Udaletxera.

► Eider Goikoetxea Mariñelarena (Uztegi)



*Negua denez gero
motzago eguna
urtea bukatzeaz
ilusio txukuna.
Gabonak eta poza
betez bihotz ona
kalean hotza eta
argia da iluna.
Lagun artean goxo
bete nahi duguna
irriz heldu dadila
helduz urte ona!*



Doinua: Behin batean Loiolan. **Hurrengoa:** Aitor Goikoetxea Mariñelarena (Uztegi).



Iker Arretxea Arauzo (Lekunberri).

IRITZIA

FRANCO, 50 URTE

Orain dela gutxi, azaroaren 20an, hain zuzen ere, bete ziren 50 urte Francisco Franco diktadore, faxista eta anker handia hil zenetik.

Egun hauetan, jende askok gogoratu eta azaldu du non eta zertan ari zen, berri hura jakin zuenean, alegia, diktadorearen heriotzarena. Bueno, ba, ni ere ez naiz batere originala izanen, eta, gauza bera egin behar dut.

Egunsenti hartan, ni, batxilergo seigarren mailan nintzen, Iruñeko apezgaitegian, nire logelan; ohatzean.

Halako batean, eta, presaka, Patxi Fuertes Quiñones izeneko ikaskidea, ohatzeraino etorri zitzaidan pozak txoratzen, Franco hil zela oihukatuz, eta, mesedez, lehenbailehen jaikitzeke, txistua jotzen has nendin.

Goizeko zazpi eta erdiak edo antzeko zer bait ziren. Ordu hartan, ikasle batzuek gimnastika izan behar zuten, baina diktadorearen heriotza zela eta, bertan behera gelditu zen klase hura.

Esan bezala, Patxi izeneko ikaskidea, pozez gainezka iritsi, ni jaikiarazi, justu-justu jantzi, eta, aurpegia garbitzeko denborarik ere hartu gabe, berehalaxe hasi nintzen txistua jotzen, logelen arteko pasabide luze haietan: Gora Euskadi, batzuetan; Eusko gudariak gara, beste batzuetan; hainbat biribilketa geroxeago; eta, halaxe joan ziren lehengo minutu pozgarri haiek.

Geroxeago, jarduera alai eta loriatsu hura bukatuta-koan, inoiz baino gusturago eta lasaiago joan ginen denak gosaltzera. Egun hartan ez genuen eskolarik izan.

Xanti Begiristain Madotz.
Auritz, 2025-11-26.

URZUBI S.A.
GASSÓ
Tel. 948 504 241
urzubi@hotmail.com
LEKUNBERRI



TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza


CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.
ZURGINTZA OROKORRA
INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefonoa eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com


SOTIL GARAJEA
BETELU
948 513 007
sotilgarajea@gmail.com


ekin
rotulación
948 85 32 79

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea
Arribe
948 51 31 34

Hurrengoa:

Xabier Etxarri Otermin (Lekunberri)



Orgi Soroa Guelbenzu
(Lekunberri)

maite ditut maite gure bazterrak

Baraibarretik Ttuturrerainoko gailurrak

Ibilbidea: erdi zirkularra
Distantzia: 11 km
Desnibela: +650 m
Zailtasuna: ertaina

Zergatik aukeratu dut?

Ttuturrera iristeko bide desberdin, entretenigarri eta ikusgarri bat delako. Baina kontuz, beti gomendagarria da ibilbide berri bat egin behar dugunean, bai Internet bidez bidea ongi begiratzea bai eguraldiaren iragarpena ikustea; lainotzen denean bidea asko zailtzen baita.


Bidea:

- 1 Baraibarreko antenetatik abiatu eta Mailoetarako bidea hartuko dugu.
- 2 Km bat pasatxo, egurrezko hondakin batzuk ikusiko ditugu eta ezkerrera apur bat egingo dugu, bidetik jarraituz.
- 3 Ondoren, langa batera iritsiko gara: pasa eta berehala Errazkingo bordara helduko gara.

Borda atzean utzita eskuinera biratu eta lehen gailurra igoko dugu: Arriolatz.

- 4 Ttuturre begietan, Uarrain, Zubizelagañe eta Alborta gailurrak igaro eta, azkenik, Ttuturre igoko dugu.
- 5 Ttuturretik jaitsi eta gailurrak berriro igo gabe, Mailoak zeharkatzen dituen ohiko bidetik itzuliko gara Errazkingo bordaraino.
- 6 Bertatik egindako bide bera desegingo dugu Baraibarko antenetaraino.

7



“Urzubi kooperatiba 1980an sortu genuen”



Martin Bildarraz Urzubiko tailerrean.
Argazkia: Argiñe Bildarraz.

Martin Bildarraz Vergara aldaztarrak 45 urte igaro ditu lanean Urzubi kooperatiban. 1980an sortu zenetik, hasierako urte gogorretatik gaur egun arte, Lekunberri, Larraun, Araitz eta Beteluko bizilagunekin estuki lotuta egon da. Jubilazioaren atarian, Urzubiren sorrera, bilakaera, bezeroekin izandako harremanak eta bere ibilbide profesionala gogora ekarri ditu.

beharrezkoa zen. Eta nik, buruan ez nuen beste gauzarik. Ilusioek eta gogoek egunero indarra ematen zidaten; nolabait ere, jendeari zerbitzua ahalik eta egokien emateko.

Zein izan da Urzubin egin duzun ibilbide profesionala?

Urzubi tailerreko arduraduna izan naiz. Nire lanak tailerra indartzea, handitzea eta mantentzea izan dira. Mekanikari lanetan aritu naiz gehien bat, mota askotako makinak eta gailuak konpontzen. Baina tailerreko beste 3 lankideekin batera, hainbat lan ezberdin ere egin ditut: burdina landu, soldaketa lanak egin...

“Astelehenetik igandera lanean aritzen ginen, gelditu gabe”

Noiz sortu zenuten Urzubi kooperatiba?

Urzubi kooperatiba 1980an sortu genuen. Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberri inguruan burdindegirik ez zegoenez, horrelako toki bat zabaltzea ideia ona zela pentsatu genuen. Gainera, hemengo baserri-tarrei zerbitzua emateko tailer baten beharra zegoela sumatu genuen.

Harrezkeroztik 45 urtez Urzubiko tailerreko arduradun lanean aritu nintzen. Halaber, 22 urte nituela hasi nintzen eta 67 urte izanik, 2025ean amaitu nuen lan-ibilbidea.

Nola zabaltu zenuten Urzubi kooperatiba?

Urzubi 3 bazkideren artean ireki genuen. Peio Etxarri Urkizu, Rafa Zubiria eta ni, Martin Bildarraz, izan ginen hasierako bazkideak. Eta hortik sortu genuen enpresaren izena (3 abizenak lotuta): “UR-ZU-BI”.

Lehenbiziko pausoa tailerra non eraiki nahi genuen pentsatzea izan zen. Azkenean Lekunberriko sarreran lursail bat lortu genuen. Egia esan, hasieratik toki aproposa zela iruditu zitzaigun. Izan ere, 3 puntu lotzen

diten errepidea hor kokatzen da.

“45 urtez Urzubiko tailerreko arduradun lanean aritu nintzen”

Nola gogoratzen dituzu lehen urte haiek?

Lehen urteak oso gogorrak izan ziren, eraikina eta negozioa guk geuk altxatu genituen. Beraz, askotan bi lanak elkartzen ziren: batetik, eraikina eta negozioa altxatu; eta bestetik, jendeari zerbitzua eman. Ondorioz, astelehenetik igandera lanean aritzen ginen, gelditu gabe.

“Lehen urteak oso gogorrak izan ziren, eraikina eta negozioa guk geuk altxatu genituen”

Hala ere, enpresa abiarazteko eta martxan jartzeko lan hura guztia

Zein izan dira Urzubiren aldaketak azken urte hauetan?

Mekanikazko lanetan gauza asko aldatu dira, adibidez: traktoreen mekanika. Hala, gaur egungo makinak elektronika asko daramate, eta gu gauza mekanikoak konpontzen abilagoak gara. Burdin-lana ere asko aldatu dela nabarmenduko nuke. Izan ere, gaur egun burdinaz aparte, beste hainbat material erabiltzen baitira: Aluminioa, PVC...



Martin soldatzeko makinarekin lanean.
Argazkia: Argiñe Bildarraz.

Zein momentu edo proiektu duzu gogoan bereziki, zuretzat garrantzitsua izan delako?

Ez dut momentu bat konkretuki gogoratzen. Urte hauetan guztietan, herritarren arazoak konpontzea, proiektuetan laguntzea, nahiak betetzea eta zerbitzua eskaintzea izan dira nire ilusio nagusiak.

Zer aholku emango zenioke Urzubi biko lantaldeari?

Urzubiko lantaldeari aholku bat eman beharko banio, bezeroak eskatzen duenari irtenbide bat eskaintzea izango litzateke. Nahiz eta momentuan bezeroak adierazten dituen arazoak soluziorik ez izan, ahalik eta argibide edo laguntza gehien eskaintzea garrantzitsua da. Izan ere, bizitako esperientziak irakatsi dit bezeroak pozik sentiaraztean berriro itzuliko direla.

“Eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan nigan konfiantza izan duten guztiei”

Orain Gassó izeneko enpresa batek kudeatuko du Urzubi kooperatiba...

Bai. Urzubin geunden bazkideak jada jubilazioaren ataritan geunden eta beste bazkideek zein langileek ez zuten jarraitzeko asmorik. Orduan, enpresa saltzea erabaki genuen eta Gassó enpresaren nagusia gurekin harremanetan jarri zen Urzubi erosteko intentzioarekin. Orain, haiek kudeatu-

ko dute kooperatiba.

Momentuz, burdindegia eta tailerren martxa berdinarekin jarraituko dute eta tailerlean berrikuntza batzuk egingo dituzte. Hala ere, proiektuak norabide berdintsua jarraituko du. Gainera, modernizazio eta produktu berriak gehituko dituzte.

Eta erretiratzen zarenean...

Kezka eta betebeharrak gabe lasaia bizitzea espero dut. Aldiro-aldiri erlojuari begiratu gabe. Urte asko igaro dira lanean hasi nintzenetik, Urzubin hasi baino lehen ere lanean bainengoan jada. Baina nahiz eta erretiratu, badakit geldirik ez naizela egongo. Baditut proiektu bat baino gehiago buruan ez aspertzeko...

Amaitzeko, eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan nigan konfiantza izan duten guztiei. Nire aldetik momentu guztietan ahal dudana egin baitut laguntzarik hoberena eskaintzeko. Eskerrik asko!



Urzubi denda.



Urzubi tailerra.



Urzubi denda.

IORTIA CLÍNICA DENTAL - HORTZ-KUTXEA

Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol. Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsasu: 948 467 603 · 667 661 769

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

aitz berri

edertasun zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290
aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia
Estetika
Presoterapia
Podologia
Laser-depilazioa eta
depilazio elektrikoa
Dietista-nutrizionista
Mikropigmentazioa ezpainenetan
Mikroblading bekainenetan



Rural Domus proiektuko parte-hartzaileak eta profesionalak prestakuntza saio batean.

Nafarroako Kutxa Fundazioak Nafarroako lurralde osoan zabaldu du bere presentzia

Fundazioaren helburu estrategikoetako bat da ikusgarritasun, presentzia eta jarduera handiagoa izatea Erkidegoko eremu guztietan. Hala islatzen da 2023-2028 Plan Estrategikoaren bigarren ardatzean, eta 2025. urte honetan lurraldetasun-plan bat sortzeko balio izan du.

Nafarroako Kutxa Fundazioaren helburu estrategiko honek hiru lan-ildo ditu: erakundearen presentzia, jarduera eta zabalkunde handiagoa, aurreko ibilbidean sortzen ari den eraginari esker. 2025ean lurraldetasun-plan hori abian jarri zenean, azterketa- eta entzute-fase aktibo bat izan zen, eta, horri esker, Nafarroako hainbat eremutan presentzia nabarmena izan zuen, erakundearen beraren proiektuen bidez (CIVICAN, Isterria edo Hondarribiko Udalekuak) eta Innova Programaren bidez ("la Caixa" Fundazioarekin batera sustatua).

Nafarroako Kutxa Fundazioak eginiko entzute aktiboko lana zonalde ezberdinetako eragile garrantzitsuenekin aurrez au-

rreko topaketetan oinarritu da, hala nola, Tokiko Ekintza Taldeekin edo garapen sozial, ekonomiko eta kulturalako erakundeekin. Lan horri esker, erakunde horien artean ikusgarritasun handiagoa lortu du Fundazioak, eta leku desberdinetako errealitatea hobeto ezagutu du.

Era berean, landa-eremuetako despopulazioaren erronkari Nafarroako Gobernuarekin edo Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin batera aurre egiteko kezka eta beharra partekatu dira.

Fundazioak aldez aurretik sortutako eragina egiaztatuta, eta Nafarroako geografiako eremu desberdinetan ikusgarritasun handiagoa izateko hel-

buruarekin, 2025ean berariazko lan bat egin da landa-inguruneetako komunikabideekin. Hala, guztira 50 eragin lortu dira argitalpen horietan.

Datu hori oso lotuta dago Nafarroako Kutxa Fundazioak, bereziki Innova Programaren bidez, eragina duen hainbat herritan ekitaldi eta ekitaldietan presentzia handiagoa izatearekin. Ekimen berritzaileak babesten dituen ekimena da, eta 8.000 biztanletik beherako herrietako proiektuei zuzendu-

tako jarduera-eremu zehatza du.

Era berean, entzute aktiboko prozesuaren ondorioz, Nafarroako Kutxa Fundazioak jardueraren zati bat eta bere proiektuen ezagutza Erkidegoko hainbat eremu eta kolektibotara eramateko aukera antzeman du. Hala, dagoeneko ari dira planteatzen zenbait proiekturi lotutako ekintza posibleak, hala nola adinekoentzako Bizikidetza-eredua, CIVICAN kultura-zentroa, Isterria hezkuntza bereziko zentroa edo denboran errotutako kultura-ekitaldieta-rako laguntza-deialdi bat.

Ikastoletako hezkuntza bereziari buruzko prestakuntza

Nafarroako Kutxa Fundazioaren jarduerak 2025ean eremu horretan izan duen eraginak bultzada berezia izan du Nafarroako Ikastolen Elkartek eta Isterria zentroak sinatutako lankidetzak hitzarmenaren eskutik. Hala, hezkuntza bereziko zentro horretako profesionalek hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleekin lotutako gai espezifikoetarako buruzko prestakuntza emango diete ikastoletako ki-deei.

Era berean, Innova Programak Sakanako proiektuak babestu ditu, hala nola, "Lau hanka, mila irribarre" animaliekin eta naturarekin esku hartzeko programa bat da, Biak Bat erakundeak garatzen duena eta haurrei, gazteei eta aniztasun funtzionala duten pertsona helduei zuzendua. Era berean, "Rural Domus" proiektuarekin lankidetzan jarraitzen dugu. Proiektu horretan, Josefina Arregui Klinikak ere parte hartzen du, mendekotasunaduten adinekoetarako Nafarroako landa-eremuan etxeko arreta hobea emateko.

TOKIKO PRENTSAK EGITEN EZ BADU,
nork kontatuko dizu?





EUSKAL HERRIKO XVII. MUS TXAPELKETA JOKATU DUTE ZIGARI ELKARTEAN

Abenduaren 28an Araitx-Beteluko Euskal Herriko XVII. Mus Txapelketako kanporaketa jokatu zuten Beteluko Zigari Elkarteak.

Hamaika bikote elkartu ziren karta jokoan aritzeko eta horien artean finalera iritsi ziren bi bikoteak zuzenean Nafarroako finalera sailkatu ziren. Jokaldi dotorez jositako arratsalde polita izan zela azpimarratu dute parte hartzaileek, lasai-lasai jokatu zuten inongo presarik gabe.

Adin guztietako jokalariek musean aritu ziren baina azkenean martxoaren 7an Iruñean arituko diren bi bikote gazteak hurrengo hauek izango dira: batetik, Jon Ordorika eta Igor Garmendia txapeldunak; eta bestetik, Josu Elizalde eta Aitor Rekalde. Zorte on!



'DIRDIRAK ETA DARDARAK'

Dirdirak eta Dardarak jaialdia egin zuten abenduaren 6an eta 7an, Plazaolako bide berdean, Latasa eta Urritza arteko tartean. Lehenbiziko aldia izan da Nafarroan argi arteen jaialdi bat naturan egin dutena.

Hainbat ekitaldi egin ziren asteburu guztian zehar, eta abenduaren 7an, arratsaldeko 19:00etan Itxiera ekitaldia ospatzeko, gure eskualdeko Aralar udal musika eskolak eta Talka txalapartariak ikuskizun zoragarria eskaini zuten.

Proiektua Plazaolan, Sakanan eta Ultzamaldean jasangarritasun turistikoa bermatzeko planaren parte da. Plan hori Europako Next Generation funtsen bitartez finantzatu da.

"URTE BERRI, ASMO BERRI"

Urtariletik aurrera euskara ikasi nahi?

Hauek dira Larraungo euskaltegiko taldeak, mailak eta ordutegiak:

- A2: Astelehena eta osteguna: 17:00-19:30 (Aurrez aurrekoa)
- B1: Asteartea eta asteazkena: 16:30-19:00 (Aurrez aurrekoa)
- B2: Asteartea eta osteguna: 17:30-19:30 (Jardun Bikoa)
- C2: Ostirala: 16:30-19:30 (Jardun Bikoa)

Horretaz gain, Mintzakideko taldeetan elkartu nahi baduzu, hauek dira elkartzeko lekuak eta ordutegiak:

Lekunberriko Ogiberri tabernan, asteazkenean arratsaldeko 17:00etan.
Lekunberriko Kantina tabernan, ostiralean arratsaldeko 16:00etan.
Lekunberriko jubilatuetan, astelehenean goizeko 11:30ean.
Atalluko San Migel ostatuan, ostiralean arratsaldeko 19:00etan.
Talde berriak sortzeko eta ONLINE aritzeko aukera!





ERROMERIA ETA TRADIZIOA INDARTUZ

Abenduaren 13an Santa Luzia eguna izan zen. Hurrengo egunean, ohitura den bezala, Arruizko ermitara erromeria egin zen.

12:30ean Jesus Mari Sotilek meza eman zuen. Halaber, Pilar Argiñenak akordeoia jotzen zuen bitartean, herritarrek kantari aritu ziren.

Aurten eguraldiak lagundu egin zuen, eta jendearen parte-hartzea bikaina izan zen: Arruiz, Lekunberri, Uitz, Etxarri, Iruñea eta Urritzako 32 lagun elkartu baitziren.



ABENDUAREN 23AN IREKI ZITUZTEN LEKUNBERRIKO ALDE ZAHARREKO KALE GUZTIAK

Ekainean hasi ziren Alde Zaharreko 14-22 eremuko hoditeria eta zoladurak berritzen. Izan ere, Galburu okindegitik Mitxasene kultur etxeraino doan ibilbidea berritu dute. Beraz, abenduaren 23an Alde Zaharreko kale guztiak zabaldu zituzten.

Lekunberriko Udalak eta Alde Zaharreko bizilagunek hainbat bilera izan zituzten denon artean ahalik eta ikuspuntu zabalenak jasotzeko. Beraz, herritarren iritzia eta proposamenak bildu ostean, kaleen berrikuntzen emaitza ona izan dela adierazi du Udalak. Hala ere, azken konponketa txiki batzuk gelditzen dira oraindik; hurrengo hilabeteetan zehar etxeetako argiteria lur azpitik jarriko baitute.

Obra horiek 665.760 €-ko aurrekontua izan dute eta 426.000 €-ko dirulaguntza jasoko dute Nafarroako Gobernutik. Lanak pasa den martxoan esleitu zituen Lekunberriko Udalak eta ERKI Eraikuntza enpresak egin ditu.

EUSKARAREN EGUNA PRIMERAN OSPATU ZUTEN LARRAUN ETA ARAITZEN

Larraungo Euskara Batzordeak eta Araizko Euskaraz bizi taldeak Mikroipuin lehiaketa antolatu zuten Larraun eta Araitz ibarretan. Sari-banaketa Araitzen, Araxes ikastetxean, abenduaren 2an izan zen. Saridunak hurrengo hauek izan ziren:

- Lehen Hezkuntzan:
Hodei Arregi eta Jokin Mitxeltorena.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:
Eder Salvatierra eta Ainara Arraztio.

Larraunen orde, Gabari Gune Irekian, abenduaren 3an Euskararen Egunean ospatu zuten. Hala, saridunak hurrengo hauek izan ziren:

- Lehen Hezkuntzan: Enara Etxarri.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan:
Enara Irastortza eta Alvaro Zubitur.
- Helduen kategorian: Aiora Irastortza.

Informazio gehiago: <https://labur.eus/ey1lrlcr>



●● Maite Garcia Satrustegi (Betelu), Maite Harategiko arduraduna.

“Ezinbestekoa da herri txikien harategietako kalitatea bermatzea”



Maite Harategia.
Argazkiak: Maite Garcia Satrustegi.

Kalitatea, gertutasuna eta etxeko zaporea dira Beteluko Maite Harategiaren ezaugarri nagusiak. 2002an zabaldu zituzten ateak herritarren beharrei erantzuteko asmoz. Gaur egun, lau emakumek osatzen dute harategiko lantaldea: bi sukaldari eta bi saltzaile.

14

Zeintzuk dira Maite Harategiaren berezitasunak?

Maite Harategiaren berezitasun nagusiak janariaren kalitatea eta eskaintza zabala dira. Produktu klasikoak izateaz gain, hemen bertan prestatzen ditugu txistorra, hanburgesak, txorizoa etab. halaber, dena etxean egiten dugu. Egun, gehien saltzen ditugun haragiak txekorra eta txerria dira. Hala ere Maite Harategiko produktu guztien kalitatea bermatzen dugu.

Horretaz gain, plater prestatuak ere

eskaintzen ditugu: potajea, kroketak, piper beteak, txekor eta txerri-masailak, haragi-bolak, tripakiak... denetarik. Gero eta gehiago saltzen ditugu.

Gainera, postreak ere egiten ditugu: gazta-tarta, flana, arroz-esnea... eta bezeroek eskari bereziren bat eginez gero, prestatzen saiatzen gara.

Izan ere, herritarrekin eta ekoizleekin harreman estua dugu. Hala, gertutasuna da gure lanaren oinarrietako bat.

Nondik ekartzen dituzue harategiko produktuak?

Ahal dugun neurrian, hemengo produktuekin lan egiten dugu, ez dugu urrutiko haragirik ekartzen. Gehienez, Gipuzkoako edo inguruko herrietako haragia lortzen saiatzen gara. Gainera, baserriko oilasko naturala saltzen dugu, Errazkingo Josu Orejak ekarria; produktu hori bereziki gustuko dut.

Zergatik da hain garrantzitsua haragiaren kalitatea?

Haragiaren kalitatea ona izatea garrantzitsua da guk hori jaten dugulako. Saltzen dugun produktua kalitatezkoa izatea funtsezkoa da. Azkenean, animalia ongi hazi eta zaindu badute, haragia ere ona izango da, eta produktua ukitzean berehala nabaritzen da.

Zein erronka dituzue gaur egun herri txikietako harategiek?

Nire ustez, gure produktuak supermerkatu handietatik bereizi behar ditugu. Hau da, prezio desberdina izan arren, ezinbestekoa da herri txikien harategietako kalitatea bermatzea. Bezeroek berehala nabaritzen baitute haragiaren kalitatea. Beraz, erronka nagusiak kalitate hori helaraztea eta hemengo haragiak duen balioa ikuskaraztea dira.

Eta etorkizunean...

Urteztan urte kozinatutako produktuen eskaera handitzen ari dela ikusi dugu. Beraz, bide horretatik jarraituko dugu. Bezeroen beharretara moldatzeko prest gaude. Halaber, inguruko herritarrei eskerrak eman nahi dizkiet urte hauetan guztietan erakutsitako konfiantzagatik. Norbaitek gure produktuak probatu nahi baditu, ongietorria izango da.

Telefono zenbakia:

948 513 088

Web orrialdea:

maiteharategia.com

Helbidea:

Antigua kalea, 7, Behea,
31890 Betelu, Nafarroa.





Ane Barjaeta




Marijo Arriola Irizarren



Luis Mari Ugarte Arruebarrena



Luis Mari Ugarte Arruebarrena



Joxe Mari Zabaleta Zabaleta



Belén Saralegi Otamendi



Mikel Muguro

2020

2020




Aranza Mikeo Arriarte



Felipe Uriarte



Yolanda Juaneña Berkoetxea



Jone Gabari Satrustegi



Yolanda Juaneña Berkoetxea



Eva Fernandez Zurilla



Ana Telletxea Koxkolin

MAILLOPE 20

Uztaila

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

Abuztua

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
					1	2
	4	5	6	7	8	9
3	11	12	13	14	15	16
10	18	19	20	21	22	23
17	25	26	27	28	29	30
24						
31						

Iraila

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
	8	9	10	11	12	13
7	15	16	17	18	19	20
14	22	23	24	25	26	27
21	29	30				
28						

Urria

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
			1	2	3	4
	6	7	8	9	10	11
5	13	14	15	16	17	18
12	20	21	22	23	24	25
19	27	28	29	30	31	
26						

Azaroa

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
						1
	3	4	5	6	7	8
2	10	11	12	13	14	15
9	17	18	19	20	21	22
16	24	25	26	27	28	29
23						
30						

Abendua

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
	1	2	3	4	5	6
	8	9	10	11	12	13
7	15	16	17	18	19	20
14	22	23	24	25	26	27
21	29	30	31			
28						

20 MAILLOPE

Urtarrila

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

Otsaila

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

Martxoa

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

Apirila

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

Maiatza

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

Ekaina

Al	Ar	Az	Og	Oi	Lr	Ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					



Gurutze Sánchez eta Mikel Ijurko (Larraun Pilota Elkarte).
Argazkia: Larraun Pilota Elkarte.

Etxarri Sanchez familia izan da Larraun Pilota Elkarteko saski erraldoiaren irabazlea

Larraun Pilota Elkarteak eskualdeko komertzioei erosita-ko produktuekin osatutako saski eder bat zozketatu du: 3000 euroko balioa duen jan-edan saskia.

Zenbaki sariduna 3159 izan zen, Haizea Etxarrik saldu zuen eta Etxarri Sánchez familia izan zen saski erraldoiaren irabazlea.

Zorionak eta on egin!

Lekunberri eta Larraungo Eguneko Zentroak Eguberrietako saskiak banatu ditu

Denen artean osaturiko bi saski zozketatu dituzte Lekunberri eta Larraungo Eguneko zentroan. María Jesús Bengoetxea eta Malen Goikoetxea izan dira aurten irabazleak. Produktu bikainak eraman dituzte etxera, familiarekin eta inguruko lagunekin dastatzeko.



Ezkerrean María Jesús Bengoetxea gorritiarra eta eskuinean Malen Goikoetxea uztegiarra.
Argazkia: Yolanda Juanena.



Araitx eta Beteluko denda txikiek zozketatutako saskia.

Araitx eta Beteluko denda txikiak elkartu dira saski eder bat zozketatzeko

Herritarren konfiantza eskertzeko, Araitx eta Beteluko merkataritxikiak saski eder bat zozketatu zuten. Zozketa antolatu duten merkataritxikiak hurrengo hauek izan ziren: Aitz-Berri Ile-apaindegia, Mari Tere Janari-denda, Beteluko Botika, Maite Harategia, Atabal Okindegia eta Arribe Botika. Zozketa abenduaren 24an egin zuten eta Miren Urdapilleta atalluarrak irabazi zuen saskia. Zorionak!

Primeran joan da Araitz eta Beteluko 2025eko Kulturaldia

Ekitaldi ugari izan dituzte aurten ere Araitz eta Beteluko Kulturaldian eta ia herri guztietako jendea bertaratu da deialdietara. Talde antolatzaileak hurrengo mezu hau partekatu du:

Araitz eta Beteluko "Euskaraz bizi" taldeak eskerrak eman nahi dizkizue aurtengo Kulturaldiaren antolaketan laguntza eskaini diguzuen guztiei.

Aurten ere gai eta arlo ezberdinak proposatu ditugu, adin tarte guztiak aintzat hartzen saiatu gara eta herritarrek ez duzue huts egin, eskerrik asko!

Araitz eta Beteluko Udalei, herrietako Kontzeju eta elkarteei ere, eskerrak eman nahi dizkiegu, urtez-urte, gure proposamenak bideratzeko eskaini diguten laguntza eta prestutasunarengatik.

Datorren urtean gehiago eta hobeki! Bitartean... EUTSI EUSKARARI!

ARAITZ ETA BETELUKO "EUSKARAZ BIZI" TALDEA



'Bularretik ehundutako aitortzak' minbiziaren inguruko dokumentala Intzako Araitz-Erreka elkartean.



Esanezín musika taldearen kontzertua.



Aralar Musika Eskolako abesbatzen kontzertua.
Argazkia: Ander Elizalde.



'Ispiluan Begira' tailerra.

Albaitaritza
baserriarren
zerbitzura

Akaborro Ind., 31860 Iruztzun
www.albaitaritza.com · 948 500 343



Zein azkar pasatzen diren urteak!



Bertso afaria prestatzen.



Magia ikuskizuna amaitu osteko une bat.



"Araitzen bizi nahi duzu?" etxebizitzetako buruzko hitzaldia.



"Isiltasunetik" dokumentaleko proiektzioaren une bat.



Parkour ikastaroko parte-hartzaileak.



"Altxor kutxaren bila" ikuskizuna.

Gezurra badirudi ere, dagoeneko 2025ak berea egin du. Dagoeneko XXI. mendearen lehenengo laurdena bete dugu, ziztu bizian. Eta horrela pasatzen dira geure bizitzak, azkar batean. Ume nintzenean neure zahartzarora oso urrun zirudien, ikaragarri luze iruditzen zitzaidan izanen zela zahartzarora iristea, urteak poliki poliki pasatzen direla uste bainuen. Orain kontrakoa iruditzen zait.

Dena den ez gara mundu honetara etortzen urteak nola pasatzen diren ikustera besterik gabe. Bakoitzaren bizitzak badu bere zentzua. Badira urte batzuk gero eta argiago dudala nire bizitzaren zentzua. Ala horrela uste dut. Azken bolada honetan aurkitzen ari naiz nire bizitzak duen zentzua ongi betetzeko hiru ardatz izan behar dituela: Maitasuna, Natura eta Espiritualitatea. Orain arte bizi izan dudanak badu bere zentzua, batzuetan ulertzen ez badut ere. Ulertu ala ez, eskerak ematen dizkiot bizitzari ekarri didan guztiagatik, batzuetan mingarri izan bada ere. Indianako Sue lagunak, lehenengo martxoan bete zituen 101 urte. Bere etxean bizi da bakarrik eta etxeko lan guztiak berak egiten ditu. Ez du ongi ulertzen nola iritsi den horrenbeste urte bizitzera baina egunero, esnatzean, eskerrak ematen ditu. Begiak irekitzen ditu goizean eta lehenengo gauza, esaten dio bere buruari: "Jaungoikoak nahi badu nik egun bat gehiago bizitzea, eskerrik asko".

Ez da horren garrantzitsua urteen kopurua, nire ustez, inporta dena da bizi duguna kontziente eta eskertuak bizitzea, aldi berean. Horrenbeste daukagu eskertzeko! Une latzetan ere, bada zer eskertu. Hortaz, une zailak egon badira ere, mila esker 2025 urteari eta ongi etorria 2026 urteari!



Poz-pozik elkartu ziren haurrak, helduak, Mari Domingi eta Olentzero

Gabon gauean etxeetara joan aurretik, egunez hainbat bisita egin zituzten Olentzerok eta Mari Domingik eskualdean. Abenduaren 19an, Eguberrietako festa ospatu zuten Araxes ikastetxean eta Festa Batzordeak antolatutako egitaraua jarraitu zuten. Ibarberriko ikasle eta irakasleek ere Mari Domingi eta Olentzerori ongietorri beroa eman zieten.

Abenduaren 24an, Eguberri bezperan herriz herri kantari ibili ziren Larraun eta Lekunberriko herritarrak. Euriak ez zituen gelditu eta Alli, Astitz eta Oderitz alaitu zituzten, besteak beste. Gainera, zuzeneko musikaz gozatzeko aukera ere izan zuten. Amaitzeko, Astitzen bazkaldu eta ondoren, Lekunberrira joan ziren Olentzerori ongietorria ematera. Euritsua baina beroa izan zen eta poz-pozik elkartu ziren haurrak, helduak, Mari Domingi eta Olentzero. Jayan Jai frontoian amaitu zuten eta inoiz baino hobeto sartu zitzairen otordutxo herritarrei. Bien bitartean, Mari Domingi edota Olentzerorekin kontu kontari aritu ziren etxeko gaztetxoek, eskutitzak eman zizkieten, eta musuak, besarkadak nahiz goxokiak jaso zituzten trukean.

Aldatzetik era pasa ziren eta baserritarrez jantzita, etxetik abesten aritu ziren herriko haur eta gurasoak. Iturrian elkartu ziren iluntzean eta urtero bezala, kalejira osatu zuten. Aurten, bi astoren laguntza behar izan zuten opariak herrira eramateko, eta elkarteko berrikuntzak dirrela eta, elizan egin zuten opari banaketa.

Araitzen ordea, biharamunean herriz herri kantari ibili ziren. Eguraldia lagun izan zuten eta laranjak, mandarinak, sagarrak eta pikuak biltzeko ohitura mantentzen jarraitu zuten.



Gabonak Araxes Ikastetxean.



Gabonak Araxes Ikastetxean.



Larraun Gabon kantari.



Gabonak Araxes Ikastetxean.



Mari Domingi eta Olentzero Lekunberrin.
Argazkia: Juan Antonio Garaikoetxea.



Mari Domingi eta Olentzero Aldatzen.



Gaintzako Allandoak.



Gaintzako Allandoak.

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA
• 948 19 70 70 •
www.tanatoriosirache.es

BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldetgia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

CONSULTORIO VETERinario, S.L.
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:
948 50 43 31
Lekunberri

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK

Granja Martikanes, GANTZA, Nafarroa
Jabi, 649 472 037 - Iruñea, 680 511 037
Malloak.com | info@malloak.com

IDIAZABAL

LeKUNBERRI
TABERNA

© 948 507 628
lekunberritaberna@gmail.com
C/ Aralar, 14 baxo
31870 Lekunberri
@Lekunberri_Taberna

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZEN

634 551 743
infoaralar@gmail.com

MARTILLO TXIKI
PERKUSIO ESKOLA

Errotalde 19,
Lekunberri

www.martillotxiki.com
679 938 016

Hamalau desfribiladore jarri dituzte Larraunen



Lehen sorospenen eta desfribilatzailearen erabilerari buruzko ikastaroa.
Argazkia: Larraungo Udala.

Hamalau desfribiladore jarri dituzte Larraungo 12 herri hauetan: Aldatz, Alli, Astiz, Azpirotz, Lezaeta, Baraibar, Errazkin Etxarri, Gorriti, Iribas, Madotz, Oderitz eta Uitzin. Ondorioz, abenduaren amaieran eta urtarilaren hasieran bi formakuntza egin zituzten. Formakuntza horiek Iñigo Oreja, Eneko Saralegi eta Orgi Soroa suhiltzaile eta larraundarrek eman zituzten.

Julio Soto gorritiarrak laugarren postua bereganatu zuen Nafarroako Bertsolari Txapelketako finalean

Zortzi bertsolari aritu ziren kantuan azaroaren 27an: Julio Soto Ezkurdia gorritiarra, Ekhiñe Zapiain Arlegi, Eki Mateorena Zozaia, Saioa Alkaiza Guallar, Joanes Illarregi Marzol, Xabat Illarregi Marzol, Eneko Lazkoz Martinez eta Sarai Robles Vitas.

2.500 bertsozale elkartu ziren Iruñeko Nafarroa Arenan. Julio Soto gorritiarrak laugarren postua bereganatu zuen eta hirugarren postua Saioa Alkaizarentzat izan zen. Hala, lehen fasea amaitu ostea, Xabat eta Joanes Illarregik lotu zuten buruz burukoa jokatzeko aukera. Azkenean Xabat Illarregi izan zen irabazlea. Ondoren, Iruñeko Zaldiko Maldiko elkartearen eskutik hartu zuen txapela bertsolari gazteak.

Hau izan zen sailkapen orokorra:

1. Xabat Illarregi Marzol: 1205
2. Joanes Illarregi Marzol: 1198,5
3. Saioa Alkaiza Guallar: 732
4. Julio Soto Ezkurdia: 724,5
5. Eneko Lazkoz Martinez: 709
6. Sarai Robles Vitas: 695,5
7. Ekhiñe Zapiain Arlegi: 666
8. Eki Mateorena Zozaia: 637



Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2025.
Argazkia: Bertsozale.eus.



'Basatiak' artelanaren sortzaileak horma-irudiaren aurrean.
Argazkia: Luisa Aldaburu.

'Basatiak' izeneko horma-irudi kolektiboa Plazaola Kirolgunean ikusgai dago

Kartulina eta ur margoekin sortutako murala edo horma-irudia, arteNA elkartearen eskutik Iruñeko Plazara gunean egin zuten. Hala, 'Ezinbestean, AMETS ARTEAN - ES URGENTE SOÑARTE' erakusketaren barruko programazioaren parte izan zen. Urriaren 18an burutu zuten Luisa Aldaburuk gidatuta, eta lau ordutan jo ta ke zazpi emakume artistak jardun zuten artelana sortzen.

Bukatu eta gero, artelan ederra Lekunberrira eramatea otu zitzaion Aldabururi. Horrela, herriari opari edo eskaintza berezi bat egin zioten. Hala, "tamaina handiko artelana orain Plazaola Kirolgunean ikusgai dago, beraz, joan zintezkete ikustera" azpimarratu du Aldaburuk.

Hemen da Ene Kantaken Gabonetako abesti berria

'Iritsi dira eguberriak' kantu alaia eta rockanoleroa da oraingoan Nerea Urbizu lekunberriarrak sortutakoa. Bertan, opor egun hauetan ingurukoekin abestearen, dantzatzearen eta parte-katzearen magia azpimarratzen ditu.

Nerea musikari sortzaileaz gain, hainbat gonbidatuk parte hartu dute abestian: Gorka Urbizu, Maitane Urbizu, Pirritx, Porrotx eta Marimotots eta Loa eta Laia, hain zuzen.

Ikusi elkarrizketa osorik hemen:
<https://labur.eus/926vgrql>



Gazako Herritarren Aldeko Pilota Jaialdia ospatu dute Lekunberrin

Abenduaren 28an 300 lagun inguru elkartu ziren Lekunberriko Jayan Jai pilotalekuan, Larraungo Talde Internazionalistak Palestinaren alde antolatutako jaialdian. Bertan izan zen Ola Arafat, *Salam Gaza Nafarroa* elkarteko zuzendaria.

Trikitirauki Larraungo dantza taldeak hasiera hunkigarria eman zion egitasmoari, haurren zapata hutsen aurrean dantzatzuz. Gainera, Oihan Ijurko eta Unai Amuztegi, haiek sortutako olerki ederra irakurri eta txalaparta jo zuten.

Jaialdian zehar, zozketa ugari ere egin zituzten: Palestinako eta Maskaradako produktuak, Ola Arafaten alaben bi margolan, Gorka Urbizuren merchandising-a... gainera, salda eta txokolate beroa ere eskaini zituzten eta bildutako guztia Palestinako 100 familien egun bateko elikadura bermatzeko izan zen.

Pilota partidetan, lau eta erdiko partidua Sagastibeltzak irabazi zuen Ijurkoren aurka. Ondoren, buruz burukoan Alduntzinek Txoperena garaitu zuen. Amaitzeko, binakakoan Nazabal eta Garañok irabazi zuten De la Fuente eta Erasunen aurka aritu ostean.

Giro polita izan zela azpimarratu dute antolatzaileek, eta 2.500 euro biltzea lortu zuten. Jaialdia gauzatzeko, herritarren parte hartzea ezinbestekoa izan zen. Laguntzaileak, *Salam Gaza Nafarroa*, *Jokar Produkzioak*, *Sanmigrafi Offset* eta *Ahiru* izan ziren.

Argazki galeria ikusi nahi baduzu, sar zaitetz mailope.eus web orrialdean:
<https://labur.eus/926vgrql>



Gazako Herritarren Aldeko Pilota Jaialdia.

Emakumeari zor diogun (beste) gauza bat

Nazkatu naiz, emakumearen bandera hartuta nator, feminismoak askotan ahazten duen emakumearen hitza izatera.

Menopausia ez da amaiera, nahiz eta askotan hala irudikatzen den. Ez da isiltasunera kondenatutako bidaia bat, baizik eta bideko beste etapa bat. Emakume guztien gorputzetan gertatzen den aldaketa naturala da. Na-tu-ra-la. Gaztetasuna eta emankortasuna gurtzen dituen mundu batean, gizarteak bizkarra eman arren, (deseroso sentiarazten diolako) Menopausiaren egia batekin nator. Gorputzak aldatzen dira, baina beraien balio ez.

Menopausia ez da, ez akats, ez porrot. Barrutik eta kanpotik eraldatzen gaitu, fisiologia, biologia, psikologia, morfologia... alderdi askori eragiten die. Denok dakigun bezala, baina ezjakinarena egiten dugu, "normala da" sufrimendua ikusezin bihurtuz. Emakume askok bakardadean zeharkatzen dute, hitzik, azalpenik eta babesik gabe, "normala" izateaz gain tabua delako.

Baina etapa honetan dauden emakumeak ez dira desagertzen, sakondu egiten dira, isilagoak agian, baina baita argiagoak ere. Indar berri moduko bat hartzen dute, goxoak eta zorrotzagoak aldi berean, eta hori ahaztu egiten du sistema oso batek.

Horregatik, menopausiari izena ematea, hari begiratzea, erdigunean jartzea, ekintza politikoa da. Duintasuna eta errespetua aldarrikatzea da. Emakumea baloratzea ez da aukera bat: behar bat da. Gizarte-riaren zor zahar bat.



Guillermo Mazo Memorialeko txapelketa Lekunberrin jokatu zuten

Abenduaren 3an Nafarroako Lau eta Erdiko-Guillermo Mazo Memorialeko final handiak jokatu zituzten Lekunberrin. Pilotari azkarrenak lehiatu ziren eta finalera Aldaz (Ultzama-Buruzgain) eta Julen Baleztena (Leitzako Aurrera) sailkatu ziren. Final gogorrean, Aldazek lortu zuen txapela, Baleztenari 18-10 garaituta. Hirugarren eta laugarren postuan berriz, Nazabal (Larraun Pilota Elkartea) izan zen irabazlea, nagusitasun handiz Anzizarri (Erreka Pilota Elkartea) 18-5 irabazita.

Gainera, Kadeteen Lau eta Erdiko finala jokatu zuten. Beti Onak klubeko Ezkurak eta Rekaldek lehia bizia izan zuten, baina azkenean Rekalde izan zen kadeteen kaiolako txapelduna, 16-18 gailenduta.



Nafarroako Lau eta Erdiko kadeteen eta jubenilen txapelketetako finalistak. Argazkia: Nafarroako Pilota Federazioa.

Laugarren postua lortu zuen Ibai Soroak Euskal Timber Txapelketako finalean



Euskal Timber Txapelketaren finaleko une bat.

Abenduaren 20an Euskal Timber Txapelketaren finala ospatu zuten Zarauzko Aritzbatalde frontoian. Bertan izan zen Ibai Soroa Arribeko aizkolaria, laugarren postua lortzen zuen zuelarik Dani Vicente arerio izan zuen azken parte-hartzean.

Txapelketa Julen Kañamaresen aurka hasten zuen, galdu egin bazuen ere, Kañamares txapelketatik kanpo uzten akatsa egin baitzuen, Soroak aurrera egiten zuen. Hurrengo Xabier Zaldia izan zuen arerio eta azken-aurrekoa Julen Alberdi "Txikia". Azkenekoan Dani Vicenterekin lehiatu zen 3. eta 4. postuagatik. Vicente aitak (3'04") azkar amaitzen zituen lanak, Soroak 15 segundu gehiago behar izan zituelarik (3'19").

Nesken korrika taldean izena emateko epea zabaldu du Kirol Mankomunitateak

Azken urteotan kirola indarra hartzen joan da eta nesken parte-hartzea ere handitzen joan den arren, oraindik gure inguruko lasterketetan nesken presentzia faltan nabaritzen dela adierazi dute antolatzaileek. Horregatik eta herritarren eskaerengatik, nesken korrika talde bat sortu nahi dute.

Beraz, ikastaroa urtariletik ekainera izango da eta lasterkariak Lekunberriko Plazaola Kirolgunean elkartuko dira. Orduetgia taldeko parte hartzaileek adostu beharko dute.

Plazaola Kirolguneko bazkideek izena eman nahi badute 70 euro ordaindu beharko dituzte, eta ez-bazkideek 100 euro.

Informazio gehiago nahi baduzu deitu 649205310 zenbakira, edo idatzi kirolmankomunitatea@gmail.com helbide elektronikora.



Multikirol Saio borobila izan dute Plazaola Kirolgunean

Gure eskualdeko gaztetxoek izan zuten ongi pasatzeko aukera. Izan ere, 10-14 urte bitarteko 30 gaztetxo inguru elkartu baitziren Multikirol Saioan. Boleibola, beisbola, hockeya... joko batean eta bestean aritzen, lagunartean jostatu eta elkarrekin primeran pasatzeko aukera izan zuten. Hala, abenduaren 23an, arratsaldean hasi eta iluntzera arte luzatu zuten askok Multikirol Saioa. Kirol Mankomunitateak antolatu eta lagunartean gozatutakoa.



Multikirol saioa.

Ttutturre Kirol Elkarteak badu junta berria



Pirinioetako Ttutturreko mendi irteera 2025.

Urteko batzarrea egin ostean, 2025eko denboraldiko laburpena oso positiboa izan da. Zuzendaritza batzordearen kargu berri batzuk aukeratu zituzten: Lehendakaria Joxan Azpiroz, lehendakariordea Idoia Sarasa eta diruzaina Asun Olaechea.

Halaber, zuzendaritza batzordean Iñaki Etxarri eta Mikel Soroa bokalak eta Natalia Rodríguez Idazkariak jarraituko dute.

2025eko kontuei dagokienez, 526 euroko superabit-a izan dute aurten eta 2026ko aurrekontua onartzeaz gain, bazkideen kuotak eta irteeren prezioa mantentzea erabaki zuten. Halaber, 2026ko denboraldiko egutegia onartu zuten eta aurten hilabete bakoitzean talde batek antolatuko du irteera. Amaitzeko, federazio lizentziei buruzko informazioa partekatu eta aztertu zuten.

Egutegi osoa ikusi nahi baduzu, sar zaitez <https://labur.eus/926vgrql> web orrialdean.

KOTXERA
Taberna • Jatetxea • Brasa

948 50 43 52
kotxera13.com

Caserío Benta Zaharra,
Mugiro (Navarra)

Antsonea
BASERRIKO GAZTA

948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

NEKAZARI, S.L.

Kubota
STIHL

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com

ANTONIO CARRARO

**Iñigo Garaioa
MARGOLARIA**

696 658 288
LEKUNBERRI

OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884

TAXILON

661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola
Atallu - Araitz

● ● Amaia Alustiza Zufiaurre (Zegama), Lekunberriko Lanbroa dendako arduraduna.

“1991ko urtarrilaren 1ean ireki nuen Lanbroa liburu-denda”



Amaia Alustiza Zufiaurre Lekunberriko Lanbroa liburu-denda.

Azken hamarkadetan Lanbroa liburu-denda funtsezkoa izan da Lekunberrin. Herritarren eguneroko beharrak asetzeaz gain, harremanetarako gunea izan dela adierazi du Amaia Alustizak, herriko liburu-denda kuttunaren sortzaileak. Hala, Alustizaren lan finari esker 35 urtez zabalik egon da liburu-denda; baina orain, ateak itxi eta etapa berri bati hasiera emateko unea iritsi da.

Noiz zabaldu zenuen Lanbroa liburu-denda?

Irakaskuntza ikasketak amaitu ondoren, ikastola batean aritu nintzen lanean. Gerora, ezkondu eta Lekunberrira etorri nintzen. Beraz, etapa berri bati ekiteko une egokia zela sentitzean, nire proiektua martxan jartzea erabaki nuen.

Testuinguru horretan 1991ko urtarrilaren 1ean ireki nuen Lanbroa liburu-denda, duela 35 urte. Beraz, proiektua pixkanaka-pixkanaka eraiki nuen. Liburu-denda zabaldu aurretik lokal berean postetxe bat zegoen, baina lantokia Leitzara aldatu zutenean

lokala hutsik gelditu zen eta aukera ona zela aurreikusi nuen. Izan ere, Lekunberrin ez zegoen liburu-dendarik eta hutsune horrek ekimena martxan jartzera bultzatu ninduen.

“Liburu-denda zabaldu aurretik lokal berean postetxe bat zegoen”

Zein izan dira azken urteetako bizi-penak eta erronkak?

Asko aldatu da dena. Hasieran ez zegoen webgunerik, mugikorrik... gai-

nera, egunkariak eta aldizkariak gaur egun baino askoz gehiago irakurtzen ziren. Halaber, ez zegoen enpresa handirik, eta beharrezko jostailuak herrian bertan erosten ziren.

“Dendari txikiok ezin gara dendak handiekin lehiatu”

Egun, dendari txikiok unean behar-beharrezkoa dena soilik saltzen dugu. Herritar gehienek erosketa handiak herrikanpo egiten baitituzte. Lekunberri adibidez, autobidea zabaldu zenetik herritarrek erraztasun handia



BERTAKO HARAGIA
Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com



German Lasarte HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157



SAN MIGUEL gasolindegia
Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



urrutia enea
etxeko hestekiak
LEKUNBERRI



Amara Alustizaren artelanak Lanbroa liburu-dendan.

dute Iruñera edo Donostiara joateko. Gainera, nire ustez, enpresa handiek eta erosketak online egiteko aukerek min handia egin dute. Lehen, herriko edozein biztanle joaten zen denda txikitara. Orain gazteak online eroatera ohitu dira eta dendari txikiok ezin gara denda handien eskaintzekin lehiatu.

Horrek guztiak egoera okertu du eta gainera, ez dugu behar adinako laguntzarik. Gainera, asteburuetan eta jai egunetan lan egin behar dugu. fisikoki ez da oso lan gogorra baina lotura handia eskatzen du, eguneroko presentzia behar baita.

Gogoan duzu azken urteotan Lanbroan bizitako une kuttunen bat?

Oro har oso gustura sentitu naiz eta ezin dut une bakar bat hautatu, une kuttun ugari igaro baititut liburu-dendan. Ez naiz inoiz damutu Lanbroa irekitzeaz, halaber, jendearekin egotea gustatzen zait eta Lanbroan lan egiteak horretarako aukera eskaini dit. Beraz, oso esperientzia polita izan da niretzat.

Gainera, hemen izan dut nire margotzeko eta eskulanak egiteko txokoa eta betidanik gustatu izan zaidan hura

“Jendearekin egotea gustatzen zait eta Lanbroan lan egiteak horretarako aukera eskaini dit”

egiteko aukera. Izan ere, txikitatiki izan dut margotzeko eta eskulanak egiteko gaitasuna. Margotzeko denbora behar da eta hemen denbora asko igaro dut. Beraz, datorren etapa berrian marrazten jarraitu nahi dut, hori ez dut inoiz utziko. Marrazketa eta eskulanak egitea benetan gustuko baitut. Egia esan, ez dut inoiz marrazketa-klaserik jaso; naturalki sortzen zait.

“Ez naiz plan handien zalea, egunerokotasuneko une arruntak maite ditut”

Eta etapa berri honetan...

Lanbroa itxi ondoren loteriako makina Goxo-Goxo goxoki-dendara eramango dugu eta goiz batzuetan han egingo dut lan. Ez naiz plan handien zalea, egunerokotasuneko une



arruntak maite ditut. Orain, astean zehar lasai bizitzeko aukera izango dut: mendira eta kostaldera joan, kafe bat hartu, margotu, eskulanak egin... izan ere, bizitza uste duguna baino errazagoa da eta askotan, guk geuk zailtzen dugu. Garrantzitsuak diren unez inguratuta gaude baina batzuetan ez gara ohartzen. Hala, egun osoa lanean igarotzen dugu gastu handiak ordaintzeko eta etxera iristerakoan nekatuta sentitzen gara. Hurrengo egunean, berri, berdin. Beraz, orain ez dut ezer berezirik egin nahi. Lasai bizi nahi dut.







- IBILGAILU GUZTIEN TXAPA KONPONKETA ETA MARGOKETA
- BANKADAKO LANAK
- ERROTULAZIOAK
- LLANTA BERRITZEAK
- JASO ETA ETXERA ERAMATEKO ZERBITZUA
- KRISTAL ALDAKETAK
- BARRUKO ETA KANPOKO GARBIKETA
- ADEITASUN AUTOA DOAN


680 859 938 · 948 500 166 · CHAPIGO@GMAIL.COM

Gutuziak

Ummm, zenbat jaki goxo
lauki honen barruan:
brokolia, zerba, ziazerba,
orburua, marrubia, aza,
sagarra, azenarioa,
tomatea, perrexila....
Txintxin untziak oso
gustukoak ditu guztiak,
bi izan ezik.
Zeintzuk dira
bazterrean utziko
lituzkeen bi jaki horiek?



Handienetik txikienera

Ordena itzazu untzi hauek
handienetik txikienera.
Handienari 1 zenbakia eman,
eta txikienerari 9.

Kontsultatu soluzioak: www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak



IREKITA URTARRILETIK ABUZTURA



PERKATZENEA
SAGARDOTEGIA

633976206 San Anton, 20
649648669 www.perkatzenea.eus 31879 Madatz



serigrafia
diseinua
estanzapazioa

kaixo@gko.eus 608 228 234



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com

AGENDA

ILBELTZA

- 18- 17:30 Zineclub proiektzioa: 'Cesar debe morir'.
Lekunberriko Udaletxea.
- Araitz Beteluko Krosa XIX: 10:30 haurrak eta
12:30 helduak. Betelu.
- 19- 18:00 24. Korrika aurkezpena Larraunen.
Larraungo AEK.
- 20- 18:30 24. Korrika aurkezpena Araitzen.
Araizko Udaletxea.
- 25- Ttuturre K.E-k antolatua, Genekogortako mendi
gunea (Bizkaia): Bilbao – Pagasarri – Ganekogorta
– Pastorekorta - Arrigorriaga.

'EuskarAbentura' espedizioan izena emateko epea ireki dute

EuskarAbentura 2009, 2010 eta 2011 urteetan
jaiotako gazteentzat prestatutako espedizioa
da. Lapurdi, Nafarroa Behera, Zuberoa eta dias-
porako gazteentzat. Hautagaitza aurkeztu nahi
baduzu, proiektua eta aurkezpen bideoa bidali
beharko dituzu.

Informazio gehiago:

- euskarabentura.eus
- izenematea@euskarabentura.eus

XIX. Araitz eta Beteluko Krosa egingen dute urtarrilaren 18an

Urtarrilaren 18an izango da Erronka Hirukoitzaren lehen lasterketa: Araitz-Beteluko krosa. Haurren lasterketa 10:30ean izango da eta helduena 12:00etan. Izena eman nahi dutenek <https://labur.eus/926vgrql> webgunearen bidez egin beharko dute. Egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera, baina 5€ garestiagoa izango da. Sari orokorrez gain, mankomunitateko korrikalarientzat, beteranoentzat eta errelebokoentzat sariak ere egongo dira.

Hemen da 24.Korrikaren aurkezpena

Larraunen, urtarrilaren 19an, 18:00etan, Larraungo AEKn.

Araitzen, urtarrilaren 20an 18:30ean, Araizko uda-
letxean.

Informazio gehiago nahi baduzu joan zaitez La-
rraungo AEKra, idatzi larraun@ae.eus helbide
elektronikora edo deitu 948 604704 zenbakira.

Kalean da eskualdeko 2026ko egutegia

Lekunberri eta Larraungo 2026 egutegia banatzen
hasi dira ibarreko etxe guztietan. Egutegia Larraungo
eta Lekunberriko Udaletako Kultur Zerbitzuaren lan-
kidezarekin argitaratu dute, eta natura ingurunearen,
landa bizitzaren eta tokiko paisaiaren irudi adierazga-
rriak biltzen ditu. Etxean jasotzeaz gain, nahi dutenek
ale bat jaso dezakete Larraungo Udaletxean, Lekunbe-
rriko Udaletxean edo Mitxausean.

'Marmotarenak' liburu ilustratua kalean da

Marmotarenak ize-
neko ipuin ilustratua
argitaratu dute Felipe
Uriarte idazleak eta
Irene San Sebastian
ilustratzaileak. Li-
buruaren istorioa-
ren arabera, Teresa,
Helene eta beraien
aitak motxilan kan-
pin-denda hartuta, egun batzuk
mendira ongi pasatzea joan dira. Mendian
Karraxki ezagutuko dute, marmota hartzun
trebea. Marmotak, ugatzak, basahuntzak,
mendi ikusgarriak, aintzira distiratsuak...
Denetarik azaltzen da istorio interesgarri ho-
netan.

Liburua salgai Atabal Okindegian: 20€





URTE BERRI ON!